



Ebazpena, Justizia Administrazioako zuzendariarena, zeinaren bidez behin-behineko atxikipenaren, zerbitzu-eginkizunen eta ordezkapen bertikalaren bitartez lanpostuak aldi baterako betetzeko prozedurarako deialdia egiten duena; eskainitako lanpostuak Eibarko barruti judizialeko bulego judizialeko, udalerrietako justizia-bulegoetako eta horien elkarreketako eta erregistro zibileko bulego orokorreko berriei dagozkie.

Justizia Administrazioako zuzendariaren 2026ko maiatzaren 26ko Ebazpenaren bidez onartu ziren Eibar, Donostia, Gasteiz eta Barakaldoko barruti judizialeko funtzionarioak adskribatzeko irizpideak, eta egokitze-prozesuaren garapena.

Ebazpen horren 9. artikuluan ezartzen denez, behin-behineko atxikipenean dauden funtzionarioak LPZ berriko lanpostu batera atxikiko dira behin-behinean, behin langile guztiak egokitzen direnean.

Era berean, ebazpenaren 10. artikulua aurreikusten du behin betiko destinoa duten funtzionarioen egokitzapena amaitu ondoren, eta bitarteko langileak izendatu aurretik, bete gabe geratzen diren lanpostuak zerbitzu-eginkizunetan edo ordezkapen bertikalean bete ahal izango dira, egokitze-prozesua egiteko unean egoera horretan (hau da, zerbitzu eginkizunetan edo ordezkapen bertikalean) eta dagokion herrian dauden funtzionarioek. Horretarako, lehentasun-ordena honi jarraituko zaio:

1. Zerbitzu-eginkizunetan dauden funtzionarioak.
2. Ordezkapen bertikalean dauden funtzionarioak.

Lehentasun-ordena bakoitzean, lehentasuna izango dute behin-behineko atxikipenean, zerbitzu-eginkizunetan edo ordezkapen bertikalean antzintasun handiena duten langileak. Berdintasuna gertatuz gero, maila altuena duenak izango du lehentasuna.

Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT

1. artikulua.- Behin-behineko atxikipenaren, zerbitzu-eginkizunen eta ordezkapen bertikalaren bidez lanpostu berriak aldi baterako betetzeko prozeduran parte hartzerako karrerako funtzionarioen zerrenda argitaratzea; lanpostuak Eibarko barruti judizialeko bulego judizialeko, udalerrietako justizia-bulegoetako eta horien elkarreketako eta erregistro zibileko bulego orokorreko berriei dagozkie (I. eranskinean).

2. artikulua.- Behin-behineko atxikipenaren, zerbitzu-eginkizunen eta ordezkapen bertikalaren bidez lanpostuen zerrenda argitaratzea; lanpostuak Eibarko barruti judizialeko bulego judizialeko, udalerrietako justizia-bulegoetako eta horien elkarreketako eta erregistro zibileko bulego orokorreko berriei dagozkie (II. eranskinean).

3. artikulua.- Funtzionarioek 2026ko irailaren 8tik 9ra bitartean, biak barne, egin beharko dute plaza-eskaera, jarraian adierazten den estekan:

<https://www.euskadi.eus/lanpostuak-aldi-baterako/eibar/web01-tramite/eu>

Behin-behineko atxikipenen dauden eta eskaerarik aurkeztzen ez duten langileak ofizioz atxikiko ditu Justizia Administrazioako Zuzendaritzak lanpostu berri batera.

Donostia kalea, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
r-humanos@euskadi.eus



Zerbitzu-eginkizunetan edo ordezkapen bertikalean dauden langileak, prozesu honetan parte hartzeko eskaera aurkezten ez badute, edo, eskatuta ere, lanposturik lortzen ez badute, behin betiko destinoa duten lanpostuan hasi beharko dira lanean.

4. artikulua.- Adierazitako epean, funtzionarioek alegazioak egin ahal izango dituzte fase honi buruz. Alegazioak lehen aipatutako estekaren bidez aurkeztu beharko dira.

5. artikulua.- Ebazpen hau izapide-egintza da, ez du gaiaren mamiari buruzko erabakirik hartzen, eta ez dio amaiera ematen prozedurari.

Ondorioz, ezin da horren aurkako errekurtsorik jarri, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean.

MARIA DOLORES MOVILLA RIVAS
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA